

BEÑAT ONAINDIA GOÑI jaunak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2013ko urriaren 14an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

7.- 2014. URTEKO ASEGURU BITARTEKARITZA KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

2014. urteko aseguru bitartekaritza kontratua esleitzea.

Aurrekaria

Lehenengoa: 2013ko uztailaren 1eko Tokiko Gobernu Batzarrean aseguru kontratuen bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak kontratatzeko baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea onartu zan.

Bigarrena: 2013ko uztailaren 13ko BOEn argitaratu zan.

Hirugarrena: Bermeoko Udalak aseguru pribaduen bitartekaritza eta kontratazino zerbitzuak lehiaketa edegi bidez kontratatzeko deialdira AON GIL Y CARVAJAL enpresea bakarrik aurkeztu da.

Argudioak

Lehenengoa: Lizitatzaille bakarra izanik, ez dago zerbitzu kontratuaren administrazio-baldintza zehatzen orrietako 20. baldintzan aurreikusitako esleipena egiteko bidea eta modua erabilita alderatzerik. Beraz, gauzea da ikustea zer/zelan aurkeztu dauen eta baldintzetan ezarritako gehiengoak eta gitxiengoak beteten dabean AON GIL Y CARVAJAL enpresearen eskaintzek.

Bigarrena: Eskatu diran aseguru xede guztientzako eskaintzak aurkeztu dauz, kasu bakotxarako aseguratzailleak honako honeek:

ASEGURU XEDEA	Aseguratzaillea
Erantzukizun zibileko aseguru	MAPFRE
Kalte materialen aseguru	MAPFRE
Ibilgailuen aseguru	AXA
Defentsa juridikoko aseguru	DAS
Korporazinoko kideen biziaseguru	SURNE
Kirol Patronatuko beharginen biziaseguru	SURNE
Udaleko beharginen biziaseguru	SURNE
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguru	SURNE

Aita Guria Itsasontziko ekipo elektronikoak	MAPFRE
Aita Guria itsasontzia	MAPFRE
Ortube itsasontzia	MAPFRE
Erabakiak hartzen dabezanen aseguria	DUAL

Hirugarrena: Prezioa

ASEGURU XEDEA	Gehiengoa	AONen eskaintza	Aldea = aurrekia	%
Erantzukizun zibileko aseguria	49.954,98	33.000,00	16.954,98	33,9405
Kalte materialen aseguria	24.043,98	21.639,58	2.404,40	10,00
Ibilgailuen aseguria	19.782,83	17.077,02	2.705,81	13,6776
Defentsa juridikoko aseguria	1.247,28	1.059,58	187,70	15,0486
Korporazinoko kideen bizitza aseguria	4.984,57	3.450,28	1.534,29	30,7807
Kirol Patronatuko beharginen bizitza aseguria	3.036,41	1.599,25	1.437,16	47,3308
Udaleko beharginen bizitza aseguria	38.754,92	28.803,64	9.951,28	25,6775
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguria	1.365,39	1.066,05	299,34	21,9235
Aita Guria Itsasontziko ekipo elektronikoak	1.085,13	882,36	202,77	18,6859
Aita Guria itsasontzia	35.760,89	31.497,93	4.262,96	11,9207
Ortube itsasontzia	5.412,06	4.776,75	635,31	11,7388
Erabakiak hartzen dabezanen aseguria	3.902,14	3.184,50	717,64	18,391
DANATARA	189.330,57	148.036,94	41.293,63	

Laugarrena: Frankiziak

ASEGURU XEDEA	Frankizia	Gehiengoa	AONen eskaintza
Erantzukizun zibileko aseguria	gehiengoa: 1.500 €	1.500,00	750,00
Kalte materialen aseguria:	gehiengoa: 300 €		
Sutea, tximista, eztanda		300,00	frankizia barik
Kristalak		300,00	frankizia barik
Arrisku osagarriak		300,00	150,00
Ekipo elektronikoak	gehiengoa: 100 €	100,00	100,00
Ibilgailuen aseguria	frankiziarik ez	frankiziarik ez	frankizia barik
Defentsa juridikoko aseguria	frankiziarik ez	frankiziarik ez	frankizia barik
Korporazinoko kideen bizitza aseguria	frankiziarik ez	frankiziarik ez	frankizia barik
Kirol Patronatuko beharginen bizitza aseguria	frankiziarik ez	frankiziarik ez	frankizia barik

Udaleko beharginen bitzta aseguru	frankiziarik ez	frankiziarik ez	frankizia barik
Babes Zibileko kideen istripuetarako aseguru	frankiziarik ez	frankiziarik ez	frankizia barik
Aita Guria Itsasontziko ekipo elektronikoak	gehiengoa: 500 €	500,00	500,00
Aita Guria itsasontzia	gehiengoa: 3.000 €	3.000,00	2.500,00
Ortube itsasontzia	gehiengoa:1.000 €	1.000,00	750,00
Erabakiak hartzen dabezanen aseguru	frankiziarik ez	frankiziarik ez	frankizia barik

Bosgarrena: Etekinetako partizipazioa

Aseguru xedea	Etekina
Korporazinoko kideen bitzta aseguru	Etekinetan % 85eko partizipazioa
Kirol Patronatoko beharginen bitzta aseguru	Etekinetan % 85eko partizipazioa
Udaleko beharginen bitzta aseguru	Etekinetan % 85eko partizipazioa

Seigarrena: Korporazinokide eta enplegaduen bitzta aseguruari jagokonean aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren azalpena eta justifikazioa aurkezteko hiru laneguneko epea emon jakon eta irailaren 24an epearen barruan eskatutako informazioa aurkeztu dau.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: 2014rako aseguru pribaduen kontratuak kudeatzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuen kontratazioa, AON GIL Y CARVAJAL SA enpreseari esleitzea

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko urriaren 17an.

ONETSIA
ALKATEA